


2018ko otsailean industria-prezioek %0,2 egin dute gora aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2017ko otsailetik 2018kora) industriako prezioak %1,5 gehitu

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak %0,2 gehitu ziren 2018ko otsailean aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan, otsaileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industri prezioek izandako aldakuntza) %1,5 gehitu da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

2018ko otsailean, Energia elektrikoa, gasa eta lurrina (%1,5), Metalurgia eta metalezko produktuak (%0,7) eta Altzariak eta beste manufakturak (%0,6) adarrek gehitu zituzten gehien prezioak, aurreko hilaren aldean. Jaitsierarik handienak: Kokeriak eta petrolio finntza (%-2,9); Industria kimikoa (%-1,0); Produktu informatiko eta elektronikoak (%-0,8).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, aurreko hilaren aldean, Energiaren prezioak %-0,8, Bitarteko ondasunenak %+0,6; Ekipo-ondasunenak %+0,1. Kontsumo-ondasunen prezioetan %+0,2. Iraunkorrenetan %0,0, ez-iraunkorrenetan %+0,2.

2018ko otsailean, 2017koaren aldean, prezio-hazkunderik handienak: Metalurgia eta metalezko produktuak (%5,2); Industria Kimikoa (%2,9); Zura, papera eta arte grafikoak, (%1,8). Jaitsierarik handienak: Kokeriak eta petrolioaren fintzea (%-2,3); Produktu informatiko eta elektronikoak (%-0,5); Erauzketa industriak (%-0,4).

Urte artean: Energia %-1,4, Ekipo-ondasunak %+1,6, Bitarteko ondasunak %+3,5. Kontsumo-ondasunak, oro har, %0,6 gehitu. Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioak %+0,8; iraunkorrenak %-0,1.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2018ko otsaila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2018ots / 2018urt	2018ots / 2017ots	2018ots / 2017abe
INDIZE OROKORRA	108,2	0,2	1,5	0,4
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	92,4	-0,1	-0,4	2,2
Manufaktura-industria	106,0	0,0	1,8	0,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	125,4	1,5	-0,3	0,6
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	106,6	0,2	0,6	0,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	100,6	0,0	-0,1	-0,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	108,8	0,2	0,8	0,7
Ekipo-ondasunak	107,9	0,1	1,6	0,4
Bitarteko ondasunak	106,7	0,6	3,5	0,9
Energia	110,7	-0,8	-1,4	-0,5

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62